

GRALaren DEFENTSA EGIN AHAL IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Matrikula egitea deialdi bakoitzean horretarako ezarritako epeak kontuan hartuta.
2. GRALaren defentsa egiteko eskaera burutu, matrikularen dataren arabera egokitzen den deialdietakoren baterako, zein hizkuntzatan egin nahi den zehaztuta.
3. Erakunde gordailura (ADDI) igo zuzendariak onetsitako GRALaren ale bat PDF formatuan, defentsa egiteko eskaera burutu bezain laster.

Ikasleak berak aukeratzen du GRALaren matrikula noiz egin (baldintza guztiak bete ondoren) baina kontuan izan beharko du defentsarako zein epe dagoen zabalik bere ikastegian ikasturte horretarako une horretatik aurrera. GRALa defendatzeko bi epe baino gehiago badaude zabalik matrikula egiten duenean, lana noiz defendatu nahi duen aukeratu ahalko du: matrikula egiterakoan bi deialditarako eskubidea duenez, biak erabili ahalko ditu, edo bakarra, edo bat bera ere ez. Matrikula egiten duenean lana defendatzeko epe bakarra geratzen bada zabalik ikasturtearen barruan, ikasleak aurkezteko edo ez aurkezteko aukera izango du, baina aurkeztu eta lana gainditzen ez badu, berriz egin beharko du matrikula lana berriro defendatu ahal izateko.